

# *ttipi-ttapa*

1990eko Irailak 27

46. zenbakia

dohain banatzen da



Zerbitzu Mankomunitateak,  
herri tikiendako alternatiba?



## CONSERVAS MARTIKO, S.A.

Ahatetan espezializatuak



Ahate-foi

Gibel-gizena

Urdai azpikoa

Ahate-hegalak

Ahate-izterrak

Tfnoa: (948) 63 07 07

BERA

ZURE MAHAIARAKO AHATERIK HOBERENA

## Zuka edo hika EUSKARAZ

*ikastari* 

### IKASTARO ARRUNTAK

#### URRITIK MAIATZERA BITARTEKOAK

Astean 8 ordu (lau egunez) maila ezberdinetan:

- Hutsetik hasteko.
- Hobetzeko.
- Irakurtzen eta idazten trebatzeko.
- EGA azterketa prestatzeko.

#### BI HILABETEKOA

Euskaraz mintzatzen baldin badakizu, astean 8 ordu (lau egunez) egin eta hasten ahal zara oinarrizko ezagupe-nak hartzen gauza sinpleak idatzi eta irakurtzeko.

Gerora begira, ikastaro luzeago batean sartzeko presta-keta izan daiteke.

### AUKERA BEREZIAK

#### GURASOENTZAT

Astean 2egunez bi ordu hartuz oinarrizko gauzetan tre-batzen ahal zara:

- Gauza arruntak irakurtzen
- Oharrak edo notak idazten, inpresoak, txekeak etabar betetzen.
- Kanta eta istorioen bitartez geure historiaz zerbait gehiago jakiten.

#### LARUNBATEKOAK

- EGA azterketa nahi baduzu.
- Idazten eta irakurtzen lehenbiziko pausoak eman eta zure euskara hobetu nahi baduzu.

Leitzaldea: 61 07 76 • Malerreka: 45 06 87 • Bortziriak: 63 77 96

# non - zer

- 
- 4** **BEHARREZKO TELEFONOAK** Kontsultak, eritetxeak, lineako autobusak, aberiak...
- 
- 5** **AGENDA** Hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
- 
- 6** **IRAKURLEAK MINTZO**
- 
- 7** **HONTAZ ETA HARTAZ**
- 
- 9/21** **HERRIZ HERRI**  
Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
- 
- 22** **ERREPORTAIA:** "Malerrekan, Zerbitzu Mankomunitaterik?" Juainas
- 
- 24** **ELKARRIZKETA:** "Eguraldiari buruz"  
Antton
- 
- 26** **KIROLAK:**  
Mattari, Roman.
- 
- 28** **LIBURUAK:**  
Pattatta
- 
- 29** **ARO BERRIAREN ATARIAN:**  
Fermin Alzuguren
- 
- 30** **MERKATU TTIKIA**
- 
- 31** **DENBORAPASA**  
Enbido
- 

## ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85  
Tirada: 3.100 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1  
31780 BERA  
Tfnoa.: 63 11 88

**Erredakzio arduraduna:** Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** Roman Harribilaga, Oskar Txoperena, P. Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Mañone, Antton, Patxi Petirena, Olain Elkartea, Goiko Argazkiak, Mena Argazkiak, Zaldúa Argazkiak, Mattari, Fermin Alzuguren, OMT eta Enbido-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea eta Nafarroako Gobernua. **Inprimategia:** Jomisa (Irun)


*ttipi-ttapa* aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.



## Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa.....	088
<b>OSASUN ZENTRUAK</b>	
Elizondo.....	452367 / 580235
Doneztebe .....	450300
Lesaka.....	637428 / 637336
Leitza .....	510248 / 510573
<b>KONTSULTAK</b>	
Arizkun .....	587039
Gartzain .....	580451
Oronotz-Mugaire .....	592024
Ituren .....	450183
Sunbilla .....	450283
Goizueta .....	514067
Igantzi .....	637755
Arantza .....	634131
Bera.....	630929 / 630036
Etxalar.....	635105
Urdazubi.....	599130
<b>ANBULATORIOAK</b>	
Irun .....	630264/621106
<b>OSPITALEAK</b>	
Irungo ospitalea .....	614444
Nafarroako ospitalea .....	251500
SSko urgentzi zerbitzua .....	246750
Virgen del Camino	
erresidentzia .....	262700
Gurutze Gorria.....	226404
<b>ANBULANTZIAK</b>	
Oitz .....	450242/450342
<b>DYA</b>	
Lesaka (larrialdiak).....	(943) 464622
Elizondo (larrialdiak).....	171717
<b>FUNERARIA</b>	
Lesaka.....	637404
<b>SUHILTZAILEAK</b>	
Oronotz-Mugaire .....	592044
<b>GARRAIOAK</b>	
Bidasotarra .....	630279
Baztanesa .....	580129
Leitzarar .....	515018
<b>HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:</b>	
Elizondo .....	580730
Lesaka .....	637154
Bera .....	630104
<b>ABERIAK:</b>	
Iberduero .....	450335/450336

## — Musika —



## Negu Gorriak

Udara badoa eta Negu Gorriak datozkigu, Negu Gorriak nere ustez negu beltzak baino hobeak dira. Eta negu gorri hauek hamahiru dardoren moduan hemen dauzkagu.

Nahiko tristatzen ari zen Euskal Rockaren munduak, zerbait eta azkar behar zuen. "Bigarren aldiak ez dira inoiz onak izan" dio esaldi ezagunak, kasu honetan ez da hola. Konprobatu nahi duenak egin dezala, diska berri honen bidez.

Muguruza anaiek eta Arkarazok argi eta gogor gure kontzientzi apalduer arroaldi bat ematen diote. Nahiz eta publikoki ez agertu ezta asmorik ere. Nahiko egiten dute oraingoz diska eta "Radio Rahin"ekin; Euskadin egin den bideo-kliparik interesgarri, bizi, eta freskoena nere ustez, Iruñeko Manolo Gil-en laguntzarekin.

Abestien banakako azalpena egiteak ez du merezi, gauza on eta erritmo berri nahiko badaude nahiz eta batzu erdi kamuflatuak egon. Euskadi zaharra eta berria, kanpoko eta etxeko kutsuak, ongi nahasi eta hobeki musikalizatuak.

Negu Gorriak

Hamairu dardo, hamairu dianetan.

Mariano



**Deialdiak**

► **Donezteben** Euskal-herriko Herri Kirol Txapelketan parte hartu zuten kirolari eta antolatzaileen afaria egingen da **Sunbilla** irailaren 29an.

► **Beran** irailaren 28an arratsaldeko 8,30etan, Gure Txokoa bilera; Joxelu atxilotu ondoren egin ziren asanbladetatik sortutako komisiok deitua. Gaia: orainarte egindakoa eta eman beharreko pausoak.

► **Lesakan**, urriaren 5ean Lesakako Euskara Batzordearen bilera

► **Igantzin**, urriaren 8an Igantziako Euskara Batzordearen bilera arratsaldeko 7etan.

► **Beran**, urriaren 9an Berako Euskara Batzordearen bilera arratsaldeko 7etan.

**Bestak**

► **Igantzin**, irailaren 28tik urriaren 1era. Igantziako Bentetan berriz, irailaren 22-23ko asteburuan ospatuko dituzte.

► **Urrotzen**, irailaren 28tik urriaren 2ra ospatuko dituzte herriko bestak.

► **Anitzen**, urriaren 6tik 9ra ospatuko dituzte herriko bestak.

**Ibilaldiak**

► **Larun Mendi Taldea**, Kilometroak-90 ekitaldira egingen du bere ataraldia; Andoainera.

**Kirolak**

► **Igantzin**, irailaren 30ean arratsaldeko 4,30etan eta Meakaundi-ko zelaian, XI. Artzai Zakur Lehiaketa.

► **Urrotzen**, irailaren 30ean arratsaldeko 4,30etan Nafarroako Motozerra Txapelketa.

► **Anitzen**, Bidasoako Herri Kirol Txapelketaren kanporaketa izanen da urriaren 7an. Parte hartuko duten taldeak hauexek izanen dira: Leitza, Zubietta eta Baztango Basaburua.

**Kontzertuak**

► **Zubietan**, TTU-RRUTTAK taldearekin urriaren 13an.

**Ikastaroak**

► **Euskara ikastaroak**, IKA-k antolatutak.

**Non:** Bortzirriak, Malerreka, Leitza, Goizueta, Saran eta...

**Matrikula epea:** Urriaren 5a arte. Interesatuak deitu telefono haue-

tara: Leitzaldean 610776, Malerrekan 450697 eta Bortzirietan 637796.

Maila guztiak eta ikastaro arruntak eta aukera bereziak.

► **Lesaka, Igantzi eta Arantzan** Iraupen Gimnasia Ikastaroak. Parte hartu nahi duenak, bere Herriko Etxean eman dezala izena.

► **Iturenen**, Dantza, Solfeo, Trikitixa, Panderoa eta Txistu ikastaroak. Parte hartu nahi duenak dei beza Herriko Etxera (450302) 12etatik 2etara astelehen, asteazken edo ortziraletan.

**Botikak**

► **Irailaren 29-30ean**, Bera, Sunbilla eta F. Iturralde (Elizondo).

► **Urriaren 6-7an**, Arantza, Doneztebe eta F. Lezaun (Elizondo).

**SANTAMARIA****Jatetxea**

Especialitatea euskal sukaldaritzan  
Eguneroko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

**MALDAERREKA S.A.****«La Suiza»**

Aseguro  
mota  
guziak

Bittiria kalea -Tfnoa: 637404- LESAKA

**GARE****Saneamenduak**

Mobleak eta bainurako tresnak  
Iturgintza eta kalefakzioa

Legia 34 — BERA — Tfnoa: 63 04 87

**LEGARRA**

PAPERTEGIA  
TABAKOAK  
LIBURUAK  
OPARIK

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA



## ITURENGO ALKATEAREN ADIERAZPENEN INGURUAN

Egia erran, jendeak egunkari bate-tako informazioak nola irakurtzen edo leitzen dituen ez dut ulertzen, batez ere *ttipi-ttapa* hamabostekariaren 45. zenbakian, 1990eko irailaren 13ko fetxaz edo dataz agertu zenan, Irakurleak Mintzo sekzio edo atalean, Ana Pilar Erasunek (NAN 72.665.764) idatziriko eskutitza irakurri ondoren. Bertan "Diario de Navarra" egunkarian Iturengo alkateak eginiko adierazpen batzu kritikatzan zi-

tuen "herritar" (egia erran Ana Pilar Erasun ez da Iturenen bizi) batek.

Iturengo alkateak adierazpen haietan bere lejislaturan eginiko lanak eta egin-beharrekoak adierazten zituen. Baina goazen harira, alkateak: "*begira ni herri batetan jaio naiz eta bertan bizitzea atsegin dut. Bertze gauza da nik ikasketak handiagoak izatea* (Iturenen berriki OHO/EGBko 6. mailarainoko ikasketak ireki dituela eta komentario bat eginen zuen bitartean), *baina hauek lortzeko* (eta zati hau ez zuen idazten bere kartan A. Erasunek) *nere herri-*

*tik bertze batzuetara joateko beharra izan dut*" erraten zuen alkateak.

Beraz eskertuko nioke A. Erasuni ez erabiltzea *ttipi-ttapa*-ren zati hau bere as-takirtenkeriak (berak bere buruari ederki aski deitzen dion bezala) idazteko.



Kizkitza Isasi Mindegia  
72.673.208

## GAZTEA BAI, KONTROLATUA

Gure agintariak gazteak kontrolatuak egon gaitezten nahi dute.

Gaupasaren bat antolatu nahi dugunean, kasu batzutan, ezinezkoak diren baldintzak jartzen dituztelako—gaupasa egin den inguruko karrikak garbitzea e.a.— bertzetan, goizeko 2,30etan bukatu egin behar direla. Horrelako burutazioa datokit. Ostatuak ere 2,30etan egin behar dute itxi, beraz dena itxia baldin badago etxera joan behar duzu. Gazte bat ka-

rrikan ikustea goizeko 5etan sospetxosoa da. Betikoek harra-patzen bazaituzte, ea zer egiten ari zaren galdetuko dizute.

Behin udako bestak pasa ondoren, gazteak dugun alternatiba bakarra, ostatu ostatu ibili eta horiek ixten direnean etxera joatea da.

Zergatik hainbeste trabak jarri gaupasak antolatzeke noizbehinka?



Pepe Botella  
15.450.722

## IRUBIDE

ostatua  
erretegia

Tfnoa: 63 71 27 LESAKA



AFRO  
REGGAE  
ZOUK

ZAGIT

Taberna. JARAUTA, 98. IRUÑEA. Tfnoa: 22 14 40

## FONDA XATURETXEA

Tfnoa.: 63 70 27

LESAKA

## ZALAIN

jatetxea

Eguneroko menua  
eta karta

Zalain auzoa  
tfnoa: 63 11 06

BERA

Laila

MUSIKA DENDA

ZERBITZU  
BERRIAK

- ✓ Ekipoen alokairua
- ✓ Disko-bar, diskoteka, e.a. ekipoak
- ✓ Soinu ekipo guziak orokorrean

San Esteban 37 - Tfnoa: 63 10 59 - BERA



Ezkontzetako erreportaiak  
Argazkiak eta bideoa

Tfnoa.: 58 01 55  
Santiago 40  
ELIZONDO



## Arkupeak, Argentinan bizi diren 61 nafartar ekarriko 20 egunetarako


Arkupeak Elkarteak, 61 nafartar, Argentinan emigranteak, egun batzuk pasatzera ekarriko ditu egun hauetan. Zenbait kasutan, behin ere ez dira itzuli Nafarrera. Talde hau irailaren 24an iritsiko da eta urriaren 12a bitarte egonen dira gure artean.

Izerdi haundiak pasa dituzte Arkupekoek behar zen diru guztia biltzeko. Proiektu honek 14 milioetako presupuestoa du eta diru hau lortzeko makina bat eskari

aurkeztu dituzte Instituzioetan nahiz elkarte partikularretan. Izerdiak ez dira debaldekoak izan eta hemen ditugu dagoneko.

Hogei egun hauetan zenbait ongi etorri eskeiniko zaizkie Udala, Diputazioa eta Gobernua aldetik, Iruñean, Donostian, Gasteizen, Baionan, Hendaian eta Irunen.

Horretaz gain bazkariak eta bertze zenbait ekintzetan ere parte hartuko dute.



## Euskara, hau janaria!

### Euskaraz bizitzeak pena merezi al du?

Bai noski, nor gara gu belaunaldiz belaunaldi etorr zaigun hizkuntza baztertzeke.

### Bizi daiteke euskaraz?

Gaur egun euskarak inoiz baino laguntza gehiago du. Euskara Irakaskuntzan, Instituzioetan, Komunikabideetan... baina hala ere... eman ditugun pauso guztiak garrantzitsuak baldin badira ere; euskara salbatzekotan, euskaldunen jarrera konszienteari esker izanen da. Nere ustetan jendeak bere euskara hobetzen saiatu beharko luke.

### Nola ikusten duzu egoera Bortzirietan?

Modan dago eta modak pasa egiten dira. Jendeak oraindik ez du behar adina baloratzen.

Jose Ramon  
(Arantza)

### Noiz galdu zen zure euskara?

Oroitzen naiz 5-6 urterekin, eskolan hasi nintzenerako, erdara banekiela... ordurako nire euskara galzen ari zen.

### Baina zure gurasoak euskaldunak dira ezta?

Bai, garai hartan euskaraz mintzatzen ziren eta anai-arrebon artean ere... eskolan hasi ginenean, gu izan ginen etxera erdara eraman genuenak.

### Noiz hasi zinen euskara berreskuratzen?

Hasi orain 7-8 urte baina ez oso serio, orain bi hilabeteko barnetegian aritu naiz gogor Donezteben, baina hortik atera eta Elgorriagan euskara gutxi egiten da, nahiz eta jendeak jakin... lagun arteko harremanak erderaz izan dira... baina saiatuko gara aldatzen!

Arrosatxo Ibarra  
(Elgorriaga)



**BATZOKI**  
JATETXEA  
OSTATUA  
Tfnoa.: 63 79 31  
Lesaka

**J. M. ANDUEZA**  
Elektrizitate instalazioak  
Bidasoa 67, Tfnoa: 63 08 54  
BERA

MEKANOTERAPIA ZENTROA  
**LUR APAL**

BIZKARRA - ARTRITISA - ZAINAK - STRESA  
Plaza Zaharra 7, Tfnoa: 63 70 11 LESAKA

**TXOKO**  
ERRETEGIA

Bazkari, afari eta  
gosariak ematen dira

ITUREN  
Tfnoa.: 45 04 91



GRUPO



ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

**SAROBÉ**  
**okindegia**

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

**Drogeria MOLINERO**



Paper pintatuak  
Pinturak  
Moketak  
Drogeria

Tfnoa: 63 02 40  
Eztegara 19  
**BERA**



**EZKONTZETARAKO KANPAINA**

**Iraila eta Urrian**

**Lore eskakizunak egiten dituztenentzako  
opari bat izanen da**

Koronak, ezkontza lore sortak eta  
konbidatuei emateko oparixtoak

*Aurrekontuak, konpromisorik gabe egiten dira*  
Bittiria karrika, Tfnoa: 63 74 94 - **LESAKA**



**INFORMAZIOA:**

Ezkalo Jauna  
Tfnoa: 45 00 54  
Doneztebe

**BERA:**

- Legia karrikan, 2. solairua eta 90 m<sup>2</sup>koa. 5.400.000 Pzta.
- Lehen Hotel Larun zenekoan, luxuxko pisua. 9.000.000 Pzta.
- Agerran, 90m<sup>2</sup>ko pisua, sukalde ekipaturik eta astzentso-rearekin. 6.300.000 Pzta.

**LEGASA:**

- Estreintatu gabea, 90m<sup>2</sup>. 5.000.000 Pzta.

**NARBARTE:**

- Estreintatu gabea, 90m<sup>2</sup>. 5.000.000 Pzta.



«**ZALDUBI**»  
**SUKALDE**  
**MOBLEAK**

**Altzari fabrikazioa eta  
muntaia**

Zaldubia Poligonoa, Tfnoa: 45 20 77  
**IRURITA - BAZTAN**

**Publizitaterik onena preziorik tikienean**

Zure iragarkiak Bortzirriak, Malerreka, Bertizarana, Baztan, Leitza, Goizueta, Zugarramurdi, Sara eta bertze hainbetez herritara zabaldu nahi badituzu, deitu 63 11 88 Telefonora



## Kaxerna, edo jabetze maltzur baten historia

Legealdi honetan bigarren aldiz eskatu du bere bihurpena Udalak



Kaxerna, oso egoera txarrean daurkitzen den etxea



Kaxerna Udalak berriro ere herrira itzultzea eskatu du

### ROMAN HARRIBILAGA

Osoko bilkuran hartutako erabakian, azaldutakoen aho batez, Kaxerna-ko eremu eta etxearen bihurpena berreskatu dio Iruñeko Gobernuari Udaltatzak. Honek dioenez, aldi batetan "Sección Femenina"rako egotetxe bat eraikitzeke eremuak eman bazituen eta bere sorketa gertarazi zuten helburuak desagerturik daudenez gero, Udal gaiak direnetarako erabili asmoz etxea egokitu nahi omen du.

Erabakia, Osasunerako Udal Ikuskariak egindako txostenan oinarrituta dago. Bertan, Kaxerna deritzon alderdian kokaturiko Egotetxearen osasun egoera akasduna nabaritu egiten du, bai etxearena bai eta

inguruenak ere, kutsakor gune bihurtzeko gai delarik, egoera honek premiazko neurriak har daitezenezaren beharra adieraziz.

### EGOERAREN AURREKOAK

Berako alderdi zoragarri- netariko batetan, aintzineko Garmendia Jauregiaren gainean dago eraikia Egotetxea. Auniztan eskatua eta bertze hainbatetan ukatua.

Historia, 1955eko maiatzaren 7an Nafarroako Falange y las JONSeK Udalari idatzi zionean hasi zen, gelditu gabe txandetan etorriko diren Espainiako Unibertsitariatzat udako nazio egotetxe bat eraikitzeke 2.000M<sup>2</sup>ko eremu bat *debalde ematea* eskatuz.

Udaltatzak, zinegotzi baten kontrako botoarekin, "adierazitako Udako Nazio Egotetxea hiri honetan eraikitzeke behar den eremuaren erosketaren dirutza, eskutara, eman egiten du" Udaltatzak, "bere aribide eta egituraz, herriarentzat apaingarri izan daitekeen gain, abantail bat behar du izan Udalerriaren ekonomiarako", erantsiz arrazoiketan.

Bere aldetik, erabaki honek sortzen duen eman beharreko dirutza 1956ko ekainaren 8an onartu zuen "Veintena"k, eta lehena-go, eremua erosteko Nafarroako Gobernadore Zibilarari 44.000 pezetatoko ordainketa gauzabidetu egiten da; gaurkotuak, 3.700.000 pzt. inguru litartekeenak.

### EGOILE EZBERDINAK

Kaxerna eraiki zen geroztik, moeta ezberdineko egoileak eduki ditu, Magisteritza bukatzeaz zeuden neskak, "Sindicato Vertical de la Universidad" SEU eta abarreko jendeak, udaldi merkea bilatuz. Berrikiago, 1974ean COESeokoak eta militarrek eta 1979an UCDko gazteak.

### ESKAERA AUNITZ

Madril-go Kultura Ministeritzari aunitzetan eskatu zaio Kaxernaren bihurpena. Gaur egun Iruñeko Gobernura transferituta dago. Hala ere, erakunde honen argitasun ezaz, Udalak, Hezkuntza eta Kultura eta Osasun Sailei zuzendu die bere eskaera.



LESAKA

Landazelaiak, anpliazioaren aurkako kanpainari ekin



Zenbait balkoietan bizilagunak bere ez adostasuna agertzen dute



Berrito ere erdiguneko kaleak hankaz gora

M.K.T.

Landazelaiak Taldeak, oraingoan 250 lagunek izenpetutako eskaera aurkeztu diote Udalari, non bertze gauzen artean, batzarre bat deitzen dute Udalan dauden partidu guztien eritzia azaltzeko.

Bitartean, anpliazioari buruzko erabakirik ez

hartzea.

EA ren eritzia informatzea dela azaldu zuen Irurtzun jaunak, eta horretarako egunkarietan eta herrian zabalduko dutela orri bat beraien eritzia emanez.

Botaziora eraman ondoren eskari hau ez zen onartu.

Laminaciones-ek bide bat itxi

Fabrikak baskula ondoan, bere eremutan zuen langa bat kendu du eta bertze berri bat paratu du baina herri eremutan, zegoen bidea itxia gelditu delarik.

Bidea libre utzi behar dela erranez, eskutitza bat bidaliko zaio fabrikari.

Hondakinen tasa

Hondakinen Mankomunitateak tasari buruzko eritzia eskatu dio Udalari, ea hasiera batetik zerbitzu horren kosto osoa kobratu behar den edo pixkanaka igoz joan. Udala pixkanaka igatzearen aldekoa agertu zen, iritzi hori Hondakinen Mankomunitateari emanen zaio.

ETXALAR

Hiri Hondakinen gestiorako mankomunitatea sortu da

PELLO APEZETXEA

Legeztatu berria da Mankomunitatea, lehendakari Etxalarko alkatea, M. M. Irigoien izendatu duelarik, lehendakari orde berriz Gloria Agerri,

Berako zinegotzia. Helburua, Bortzirietako zaborrak bildu eta lurperatzea da. Zabortegiak 82.267.236 pztatako. kostua du, leku moldaketan gastatuko dena alegia, eta Beran kokatuko da. Herrietan,

bertze hainbat lekutan bezala, zabor ontzi handiak paratuko dira, jendeak bertara nahi duen ordutan zikinak eraman ahal izanzen duelarik. Oraindik erabakitzeko dago zenbat, nolakoak eta

non jarriko diren ontziak. Zaborrak auto batez edo biz eta, arabera, sarriago edo bakanago bildu, orain aztertzen ari dira.

(bertze aldean segitzen du)





## Zakurra xerrikumeren inudea

Zakurrak zakurkumea du zaintzen eta manten-tzen, zerrikumea zerriak egiten duen bezala. Horre-gatik, seguraski ez duzu Juan Anjel Bertizek egin-dako ondoko argazkikoa maiz ikusi: zakurra zerrikumeri titia ematen. Etxa-larko Zimitzu baserrian gertatua da. Umeak kendu zizkiotenez, zakurrak ez zuen gaitzetsi zerriku-meek bere titia har zeza-ten.

## Ehiza postuen enkantetik 4 milioi pezeta herriarentzat

Irailaren 8an burutu-tako subasta horretara, iduri duenez, sakelak



Zimitzuko zakurra zerrikumeri titia ematen

bero-bero eginik hurbildu ziren ehizturiak, nork gehiagoka lau milioitarai-no eskeini bait zuten, 1.127.000 pezetatan tasa-tuta zeuden 22 postuak eskuratzeko. Ezuste naba-riena postu merkeetan gertatu da, 10. eta 11.a,

errate baterako, 334.000 eta 344.000 pezetatan har-tu direlarik, hasieran 65.000 eta 51.000tan ta-satuak. Aldaketa ttikiren bat gertatzen ahal bada ere lau postutan, hauek dituzu zenbatetan emanak izan diren xehetasun batzuk:

Sareko 1.koa, 259.000 pzta; sareko 3.a, 199.500; sareko 4.a, 121.000; ber-tze ehiza postuetan, 1.koa, 300.000; 2. postua, 250.000; 3.a, 106.000; 10.a, 344.000...

## Zazpi ehiza-postu herrikoentzat

4. eta 5. postuak herri-ko Ehizturi Elkartearen-tzat erreserbatuak izatea onartu du Udalbatzak, Elkarteak egindako eska-riari erantzunez. 160.000 pzta. ordainduko dute ehizturiak bi postu horien-gatik, gehi BEZak supo-satzen duen %12a. Aur-tengo denboraldian, bada, enkante edo subastan sar-tugabeko zazpi postutan ehizatu ahal izango du herriko ehizturiak, lehen-dik bostetan zuen bezala.

## ARANTZA

# Jubilatuek biltzeko lekua izanen dute laister

JON LARRETXEA

Zaharrendako egoitza izanen den, Erretenearen behea txukuntzeko obrak ditu udalak. Bertan egon-gela haundi bat, jangela, sukaldea eta komuna egi-teko asmoa dago. Obra hau egiteko Nafarroako Gobernuaren laguntzare-kin kontaktzen du udalak. Benetan inizatiba ederra dela uste dugu izan ere za-harrak ere behar bait zuten lasai lasai bildu, hizketan egon, musean ari eta den-

bora pasatzeko lekutxo bat.

## EParen ikastaro- etara gutti apuntatu

Berri hau idazteko orduan bizpahiru lagun bakarrik zeuden apuntatu-rik. Benetan penagarria zeren eta ikastaro bat emateko gutxieneko kopu-rua 15etakoa bait da eta martxa honetan zail xama-rra izanen da osatzea.

## Euskara ikastarorako matrikula zabalik

TTIPI-TTAPA zuen eskuetara

iritsi orduko zabalik ego-nen da IKAk antolatzen dituen ikastaroetan matri-kulatzeko epea, hau da: euskaraz ikasi edo alfabe-tatzeko ikastaroetako.

Arantzan ia guztiak euskaldunak gera, euska-raz hitz egiten dugu, bai-na iaz Bortzirietako Uda-lak egin zuten ikerketa soziolinguistikoa, euska-raz alfabetatuak, hau da: euskaraz leitzen eta idaz-ten dutenak hagitz gutti zirela azaltzen zen. Beraz, orain aukera ederra dugu euskaraz alfabetazera

animatzeko.

## Berriemailearen oharra

TTIPI-TTAPAKO lagunak uzten didaten txoko hau ahalik eta ttukunena bete-tzen saiatzen naiz bainan ziur nago zuen laguntzare-kin aunitzez hobekiago eginen nukeela. Berriren bat, abisu bat, komentario ttikiak, argazkiak, eta abar... bidali edo deitzen badidazue eskertuko ni-zueke.



IGANTZI

Igantzikoko bestatan XI. Artzai zakur lehiaketa ospatuko

OSKAR TXOPERENA

**Egitaraua:**

**Igantzikoko Bentak**

**Irailak 22, Larunbata:**

**Goizeko 10,30etan** Beste hasiera emanen dien altxiferua botako da. **11etan:** Plater Tiraketa eta **2etan:** Zikiro jatea akordioilariak alaitua. **8-10etara eta 12-4etara:** dantzaldia ZEUS Taldearekin.

**Irailak 23, Igandea:**

**10,30etan:** Meza Nagusia  
**2etan:** Abelu Peñaren bazkaria. **4etan:** Auzoko Erronda eta **8-12etara:** dantzaldia ZEUS taldearekin.

**Igantzi**

**Irailak 28, Ortzirala:**

**8etan:** Txupinazoa.  
**9etan:** Afaria Elkartean.  
**12-4etara:** dantzaldia IZAN taldearekin.

**Irailak 29, Larunbata:**

**11etan:** Meza Nagusia.

**12etan:** Lesakako Bandaren emanaldia. **1etan:** Gazteak (Agesta-Antxor-doki, Irigoien-Mitxelena-ren kontra). **4-6etara:** Gazteen Bizikleta Lasterketa: Lesaka-Bera-Lesaka-Etxalar-Lesaka-Igantzi-Lesaka-Igantzi (66km). "Miguel Elizalde" memoria. **6etan:** Aizkora apostua:

MINDEGIA-LARRETXEA (Nafarroa)  
ARROSPIDE-OLASAGASTI (Gipuzkoa).

**8-10etara eta 12-4etara:** dantzaldia GAU-BELA taldearekin.

**Irailak 30, Igandea:**

**12etan:** DUGUNA Dantza Taldearen saioa (Iruñeko Udaleko Dantza Taldea izana).

**4,30etan: XI. ARTZAI ZAKUR LEHIAKETA** Meakaundiko zelaian. **8-9,30etara eta 11,30-3etara:** Dantzaldia PASAIA taldearekin.



Igantzikoko Bentak 22 eta 23an eta Igantzin 28tik 1era iraunen dute

**Urriak 1, Astelehena:**

Egun guzian zehar haurrentzat jokoak izanen dira (Gaztelu haizatuak, kotxe txikiak etabar...)

**10,30etan:** Plater Tiraketa. **2etan:** bazkari herrikoia trikitilariekin.

**5etan:** Pilota partiduak.

**Palaz:** Profesionalak.

**Eskuz:**

EUGI-BALERDI, LUJANBIO-AZKARATEren kontra.

**7-9etara:** Trikitilariak.

**10-2etara:** Dantzaldia MINXORIAK taldearekin.



JATETXEA

Besta zoriontsuak  
opa dizkizuegu



Tfnoa: 63 72 90

IGANTZI

LA VILLA

ATERPE

jatetxea

Mendi ibilaldietarako  
Mountain bike bizikletak  
alokatzen ditugu  
tfnoa: 63 41 79

ARANTZA



## Beharrean daudenei etxeko lanetan laguntzeko

Oinarrizko Gizartze Zerbitzuak 2 langile kontratatu

TXEMA ALDABE

Elgorriagako Arrosatxo Ibarra eta Lesakako Ramoni Ordoki izan dira hautatuak zenbait froga pasa ondoren lanpostu hauetako. Hauen eginbeharra hauxe izanen litzateke: bere kabuz on ez diren edo beharra daukaten pertsoneri laguntzea etxeko lanetan. Horretarako, laguntza zeinek behar duen edo zeinek ez komisiio baten eskutan dago, osasuna, jasotzen dituen dirulaguntzak e.a. kontutan hartuko direlarik.

Bi lanpostu hauek egun erdikoak izanen dira eta irailaren 15ean ekingo diote lanari. Bertzalde, lehenbiziko gelditu diren bietako batek nahiko ez balu hirugarren eta laugarrenekoak izanen lukete aukera. Hauexek Donez-



Doneztebeko Osasun Zentroa

tebeko Arantza Arregi eta Elgorriagako Maite Mariezkurrena dira. Erran behar da ere bi lanpostu hauetara 27 pertsona apuntatu zirela baina 17 azaldu ziren azterketara.

### Ur zikinen garbiketa

Orain arte ur zikinen garbiketaz herria bera arduratzen bazen, dirudie-

nez orain Nafarroako Gobernuak Udalei agindu die herritarrei kobratzeko diru kopuru bat. Diru hau Udalek Gobernuari emanen liekete eta bere eskutan dagoen NILSA enpresa arduratuko litzateke depuradoreen garbiketaz. Depuradoreen gaur egungo egoera penagarria da zerri eginda bait daude, honetaz gain oraindik zenbait he-

rrik ez daukate ezta depuradorarik ere. Ur zikinak uhaldira doazi zuzenean, honek suposatzen duen arriskuarekin.

### Osasun Etxea haundituko da aurten

Zonaldeko Osasun Zerbitzu arduradunak erran zuenez, berehalakoan etorriko omen da Gobernuko ordezkari bat beharrak ikustera eta horien arabera egokituko da Osasun Etxea.

### Audifonoak

Dirudienez zenbait herritan saldu omen zituzten audifono edo hobekia-go aditzeko aparailu txarrak. Horrela bada, jakinerazi Begoña Alberrori, hemengo Asistente Sozialari, berak keja azaltzeko saldu zutenei.

## ITUREN

## Herri-lanak auzotarren laguntzaz egiten ari

IBAN ISASI

**Lasaga:** Dagoeneko eta auzolanen bitartez ur eta argi-ingar sare berria bukatuta dago. Auzoko karririk zabaldu egin dira eta hobekuntza nabaria

izan da. Bertzalde, eta ur kontuekin segituz, ale hau zuen eskuetara ailegatzerako ur kloratzaile berria martxan egonen da.

**Aurtitz:** Pilotalekua-  
ren estalketa egiten ari  
dira auzolanera agertzen

den jende ugariaren laguntzaz. Dagoeneko, lehenago estali gabe zegoen zatia estali dute haritz egurrez, eta barneko sapaie edo tetxoaren matxunbraketa berria hastear dago; dagoeneko zaharra kendua

dagoelarik.

Denbora guttira, Frontoiaren pareta zaharrak moldatu eta pintatu egin behar dituzte barnetik.

(bertze aldean segitzen du)





## Irailaren 29an Joaldunen eguna ospatuko da

Ohi denez, irailaren 29an, larunbata, Joaldunen eguna ospatuko da. Urtero egiten den bazkari herrikoiaz gain, bertze zenbait ekitaldi egonen da: trikitilariak (Ituren eta Sunbillako trikitilari eskolakoak), bertsolariak, aizkol apostuak, e.a.

Trikitilariak eta bertsolariak, Nafarroako Gobernuaren Principe de Viana erakundeak eta Iturengo

Udalaren laguntzaz etorriko direla Udazkeneko Jira Bira ekitaldien barnean.

Bukatzeko, bazkarirako txartelak herriko ostatu guzietan salgai daudela aipatu nahi dizuegu.

### Ikasturtearen hasiera

Iaz 48 haur zeuden Iturengo eskoletan eta aurten berriz 52. Beraz igo da kopurua. Adibidez,



eskolaurrean 15 haur dau-  
de (bi 3 urtekoak). Irakas-

leak 4 dira eta horietatik  
bat berria da aurten.

## SUNBILLA

### Lesakako koralak eta joteroak heldu den asteburuan

“Ronda de otoño” edo “Udazkeneko jirabira”ren barrenean

PATXI PETRIRENA

Principe de Viana erakundeak eta Udalek antolatzen duten “Udazkeneko jirabira”ren barrenean, bi kultur ekitaldi izanen dira Sunbillan heldu den asteburuan, hau da, irailaren 29 eta 30ean.

Larunbatean, irailak 29, ilunabarreko 8etan, “Nagore anaiak” bikotea izanen da jota kantari, herriko frontoian. Igandean berriz, irailak 30, goizeko 10etan Lesakako koral edo abesbatzak kantatuko du elizan.

Bi ekitaldi hauetarako sarrera dohainik izanen da.



Sunbillako mediku kontsulta

### Gripearren kontrako txertoa

Herriko mediku zerbitzuak jakinarazi digu dagoeneko hasia dela gripearren kontrako txertaketa kanpaina. Hirurogei urtez goitikoei eta eritasun hau hartzeko joera dutenei gomendatzen zaie bereziki txertoa hartzea, eta urriaren erdi alderaino izanen da denbora.

Beraz, udazken eta negu partean hain maiz harrapatzen dugun gripearri aintzina hartzeko aukera ederra. Horretarako, kontsultatik pasatzea nahikoa da eta ez da deus ordaindu behar.



JUAINAS

TTIPI-TTAPA aldizkari moderatu bat izan beharrea sensazionalista horietako bat balitz, ez dela, izenburu polit batez hasiko genuen kronika.

**Zubietan, gizon langabezirik ez!**

Egia borobila boteaz. Ez bait dago Aizu!. Pentsa, Udalak kontratatu nahirik eta bi besterik ez ditu lortu, hirugarrena sasi-kanpotarra hartu beharra izan duelarik: Joxemari. Juan, Patzi eta Joxemarik osatzen dute hirukotea eta jake hortaz ari gara, gure norma bat behin puskatuz bizi pribatutan sartuko naiz, aholku on bat eman nahirik. Hara, jakin dugu Joxemari eta Nati, bigarrenak ematen



zuen euskara ikastaro batetan ezagutu zirela. Amodioa sartu zen erdian eta... euskara, pikutara!. Ez legoke batere gaizki egonen Juan eta Patzikuk, maitemintzeko harriskurik ez dagoela jakinik, lanorduak euskara erakusteko probextea. Berrito izenbu-

rura etorritz, Zubietan gizon langabeturik ez dago eta, hortik aparte doneztebearrei ematen diegu... lana eta kultura. Atsuen langabeziaz ez gara solastuko. Eta gazteak? gazteak beuren juergarekin nahiko dute. Herriko bestak (Amarjinak, Iñotik,

Bestaberrri, Sanantona eta Errege bezpera) gutxi iduritu eta **Urriroko gaupasa** antolatatu nahi dute. Urriaren hamairuan izanen omen da, Pilarika ondokoa. Tturrutak ekarri nahi dute eta baliteke egun osorako ekintzak prestatzea. Eta fiestetaz ari garenez laister, Urriaren hasieran, Udalatik deialdi bat egonen da, heldu den Amarjin fiestetako musika kontratatzeko, fiestetako komisiolari hasiera emateko, oraingo Udal-kideek maiatzaren ondarrerako berriak izanen bait dira eta astirik ez dute izanen. Falta den gauza bakarra musikan zenbat gastatu behar den erabakitzea da, hurrengo plenoan. Soriako ehizturiena baino hobeto atera dadila!

URROTZ

**Nafarroako Motozerra Txapelketa irailaren 30ean**

TXEMA ALDABE

**Irailak 28, ortzirala**  
**Arratsaldeko 8etan** Pazin-zopak eta xurita-beltza herriko ostatuan. **12etatik 3etara** dantzaldia KAIXO taldearekin. **Irailak 29, San Migel eguna. Eguerdiko 12etan** Meza Nagusia. Eguerdi, arratsalde eta guez dantzaldia KAIXO taldearekin. **Irailak 30, igandea**



**12,30etan** Larrañaga eta Etxeberria bertsolariak. **1etan** Mikel Minde-

gia eta Donato Larretxearen arteko aizkora apos-tua. **4,30etan** Nafarroako

Motozerra Txapelketa 1990. Arratsalde eta guez dantzaldia KAIXO taldearekin.

**Urriak 1, astelehena**

**11etan** Mus Txapelketa. **1etan** dantzaldia. **5etan** Haur jokoak eta txokolatada. Arratsalde eta guez dantzaldia.

**Urriak 2, asteartea**

**2etan** Zikiro Jatea. Arratsalde eta guez dantzaldia KAIXO taldearekin.



BAZTAN

## Saneamenduaren kanona jartzeak arazoak sortu

Herri bakoitzak biztanlegoaren arabera ordaindu beharko du


MAÑONE

Bi arazo nagusi kontutan hartu dituzte Baztango agintariek eta NILSA enpresakoek, saneamendu kanona ezartzerakoan. Alde batetik, bailarako jendea arrunt sakabanatuta bizi dela eta bertzalde, bailarak administratiboki duen berezitasuna. Horregatik, Baztango Udalak zera erabaki du: herri bakoitzak biztanlegoaren arabera ordaindu behar duela kanona.

Erabaki hau nahiko harrigarria da, izan ere, herri bakoitzak ez baitu ez aurrekonturik, ez eta administratiboki ahalmenik ere.

Hauxe da 1989. urteko zorra herriz herri:

Elizondo: 792.540; Irurita: 148.855; Oronotz-Mugairi, 128.479; Arizkun, 108.960; Erratzu, 76.144; Arraiotz, 56.839; Elbete, 50.190; Gartzain, 49.547; Almandotz, 42.898; Ziga, 34.533; Amaiur, 33.031; Lekarotz,



31.744; Azpilkueta, 27.669; Berroeta, 21.449 eta Anitz, 12.266.

Erran beharra baita, Udalak aho batez erabaki duela kanona ez ezartzea saneamenduko obrak egin arte.

### Elizondoko txistulariak aurkeztu dira

Irailaren 22an Arizkunenea Kultur Etxean, Elizondoko Txistulariak kontzertu bat eskeini zuten. Jo zituzten piezak hauexek izan ziren: Biri-

garroa, Amaiur, Minue, Pello Joxepe, Mendizorrotzako paloteadoaren prozesioa, Berako alkate soinua eta Idiarena.

### UBkoek, Zozaiako ur arazoaz Udala ez inplikatzearen alde

Udalak hartutako erabaki honen aintzinean, Zozaiakoek beren haserre bizia agertu dute. "Legeak erraiten duenez, uraren problema moldatzeko obligazioa du Udalak" diote Zozaiakoek.

### W ttipi-flash

#### Lamiarritako Pilota Plaza martxan

Irailaren 23an, laxo partidu eta zenbait kontzejalen presentziarekin Arizkongo Lamiarrita auzoko pilota plaza inauguratu.

#### Azienda konkurtoa Elizondon

Baztango Udalak antolatuta, irailaren 23an ospatu zen ardi eta behi azien den lehiaketa. Lau talde egin eta hauek sekziotan banatu ziren. Saririk haundiena 12.000 pztatakoa.

#### "Egin" Mus Txapelketa

Elizondon 12 bikotek parte hartu zuten. Finala, Mauro Goikoetxea eta Gorka Urrotz (aitatxi-lobak) eta Mattari Plaza eta Alejandro Arizkunen artean jokatu zen. Azkeneko bikote hau suertatu zen irabazle.

#### AEK-k II. goitibera jeitsiera antolatu

Irailaren 23an, Bagordin ospatu zen.

**IPINGI**

ARROPAK, TELAK, OPARIAK ETA  
ESKULANGINTZARAKO MATERIALEA  
Santiago 88, Tfnoa: 580939 ELIZONDO

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA



*Michel Guerendiain*

SARA - LAPURDI
















Alejoinkor, buruzegie trajez politiko bat zuzidix!!



Hola Asterix ze apetece una hamburguesa? egin (e) zak hemendix



Bai Panoramix egoera hagitik larria da, denak erdaraz hasi dira



Egoere arraroa da bai horretarako pozioak ez du salio



Baina, gure hizkuntzan alfabetatzea izan daiteke irtenbidea !!

Leitzaldea Telf. 61 07 76  
Malerreka Telf. 45 06 97  
Bortziriak Telf. 63 77 96

# ike

BORTZIRIAK ETA MALERREKAKO









## Karrikak eta plaza moldatzen hasiko urrian

MARGARI eta KORO

Urriaren lehenbiziko egunetan hasi beharrak dira karrika guztiak antolatzen. Lana horien aurrekontua 80 milioikoa da eta zatirik haundiena Gobernuak ordainduko du. Kontratista berriz, Mariezkurrena dugu.

Antolamenduak, hauek izanen dira:

- Plaza dena harri xabalaz eman eta iturri bat jarri.
- Karrika guztiak berriz breaztatu eta etxe guztiak inguruz-inguru harri xabalez apindu.
- Elizondotik Goibururaino gaki den tarteka dena



berriro antolatu eta sagardiko tarteka kotxeak pasatzeko moduan utzi.

Hunekin batera egiteko dago ere bertze 20 milioiko aurrekontua, argi eta

telefonoen hariak lur azpitik emateko.

### Lezeak

Uda pastuxea denean, berriz ere erraiten ahal dugu gero eta jende ge-

hieago etortzen dela herri-  
rat lezeak ikustera. Hunek  
bizi haundia ematen dio  
herriari eta ostatu eta jate-  
txeei ere pentsa.

Lezeko sarreratik ateratzen den %80a Udalak hartzen du eta gelditzen den %20a Ana Nemourek. Ana Nemourek ia bi urte t'ardi eremaki du lezeak bere gain dituela subastan harturik eta pentsatzekoa da, urtearen bukaeran egiten den subastara ere, beharbada presentatuko dela.

Lezeak edekita dira goizeko 9etatik arratsaldeko 9ak arte urteko egun guztietan eta sarrera, 110pzta. helduentzat eta 55 haurrentzat.

### OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245  
ORONOTZ-MUGAIRE

### ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Tfnoa.: 63 11 88

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barrenean edo ate ondoan eta buruko mine maten badazue hek ikustek, abiso emanzazue Irurritako telefono hontara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.

## Publizitaterik onena preziorik tikienean

Zure iragarkiak Bortziriak, Malerreka, Bertizarana, Baztan, Leitza, Goizueta, Zugarramurdi, Sara eta bertze hainbete herritara zabaldu nahi badituzu, deitu 63 11 88 Telefonora



## Ehizarako 300 lizentzia baino gehiago eta 500 eskopeta daude herri hontan



ANTTON

Hiru mila eta piku biztanle dituen herri koxkor hontan, ehizarako 300 li-

zentzia baino gehiago banatu dira aurren.

Ehiztarien elkarteak berak 250 bazkide edo soziotik gora ba omen dauzka, denak lizentzia eskutan, eta elkartean sartu gabeko beste frankok. Guzti horietatik mordo eder bat basurde ehizarako ere baliogarriak.

500 bat eskopeta ere izanen omen dira Leitzaoko etxeetan.

Sadam Husein-ek bere esku baleuka artsenal hori dena!.

### Udalak diru partidak aldatu

Urte hontarako egin-dako aurrekontu edo presupuestoak zulo batzuk ageri zituelako, Udal Batzarrak, gehiengoaren botoz, diru baten destinoa aldatzea erabaki zuen, dirua partidaz aldatu.

Honela, aurtengoz, kendu egin da Industrialdea hasteko eta kamioi aparkalekuarentzat destinaturako dirua, eta diru hori Suhiltzaileen etxearentzat —2.500.000 gehiago—, autobiak harrapatuko lituzkeen baserrien abokatua ordaintzeko, eta abarrerako joanen da.

### W ttipi-flash

#### Patxaranak urtabea du

Aspalditxo ikusi ez den antxinbolo —patxarana— pila, eta ona, ikusi da Leitza inguruan. Pagozkurak eta haritz-zukurak ere urtabea dute.

#### Bautista Alduntzin, "Ioantxene"

HBko kontzejalak utzi egin du Udala, eta bere ordez Isidro Otermin, Betranekoa, sartuko da.

#### 140 gazte

pasa da aurtengo udan Leitzaatik, euskara ikasten, Ikastarik eta AEKk antolatutako ikastaroetan.

#### Leitzarrek

—gehiengo bat emakumeak— izena eman dute EPAk prestatutako kurtsiloetan.

#### San Migelak:

Uitziko pestak... eta aurtengo udak egin du.

#### Aurrerak

Jubeniletan ekipo bat atera du aurtengo futbol ligarako.

Hiru denboraldi ez zela Aurrera Jubenilarik ateratzen.



"Aurrera" Jubenilak

Antton



## Eskoletan zenbait berritasun

Zuzendari berria aukeratu dute: lehen ere izana den Maribel Lujanbio

P.A.

Harritzekoa ez bada ere, lau maisu berri etorri zaizkigu. Aurten eskolan ingelesa ikasteko bidea izanen dute umeez, lehen frantzea egiten zen antzera. Kirol lekua moldatu beharra ere badago, Nafarroako Gobernuaren eskuetan dagoenez orain eginkizun hori, beharbada aisago lortuko da egitea. Ea hurrengo berritasunetan sar dezakegun.

### Dantzari kataluniarrek saio polita eskeini

Goizuetarrek hara burututako bisitaldiaren truke,



1990ko Herriarteko Txapelketaren irabazleak

Reus-ko 48 dantzari etorri ziren irailaren 8an, egun berean 20 bat dantzatako emanaldia ikusi ahal izan genuelarik. Tartean, Narbarte anai-arrebek trikitixa jotzeko duten

trebetasunaz alaitu zituzten ikusleak.

### Goizuetako XII. esku-pilota txapelketa

Hasi berria da, 39 bikotek

parte hartzen dutela. 11 urte artekoak, Goizueta bertako 6 bikote ditugu, 11-12koak ere beste 6 bikote goizuetar direlarik. 13 urtez goikoetan ugariago dira, leku ezberdinetakoak gainera: Goizueta-koak 3 bikote eta Uhart-Arakil, Oiartzun, Alman-dotz, Leitza, Oberena (Iruñea), Irurtzun, Arano eta Usurbilgo bikote bana; 12 guztira. 18 urtez goikoe-tan, Goizuetak 3 bikotekin jokatzeko du, 2rekin Betelu, Lasarte eta Oiñatik, eta Tolosa, Irurtzun, Oberena, Arrasate, Zarautz eta Irunek banarekin; guztira 15 bikote.



Restaurante

DONAMARIAN BEKTA

**DONAMARIAN**  
Ireki berri-berria!

Ohizko jakiak  
ukitu bereziekin

*ttipi-ttapa*

HAMABOSTEKARIA

Publizitaterik  
onena  
preziorik  
ttikienean

Deitu 63 11 88  
telefonora.



★ **KIXKUR** ★  
ILEAPAINDEGIA

Bittiria Tfnoa.: 637429 - LESAKA



ARROPA ETA OPARI DENDA

Mercaderes 9  
DONEZTEBE



## EZKONTZAK

**Iñaki Lujanbio Antsa** eta **Jasone Apezetxea Salaberria**, Goizuetarrak, irailaren 8an.

**Jose Ramon Huizi Larrea** eta **M. Rosa Manterola**, Goizueta eta Aiakoa, irailaren 8an.

**Jose Antonio Telletxea Bergara** eta **Mari Angela Torres Ondikol**, Etxalar eta Amaiurkoa, irailaren 22an

**Juan Bautista** eta **Maria Luisa Almandoz**, Gaztelu eta Arantzakoa, irailaren 15ean.

**Jose Fermin Erbiti Arrizurieta** eta **M. Asuncion Goienbetxe Maritxalar**, Leitza eta Lesakakoa, Uztailaren 21ean.

## JAIoTZAK

**Garbiñe Altxu Legazkue**, Iturenen, irailaren 4ean.

**Ibai Berregi Mindegia**, Iturengo, irailaren 15ean.

**Jose Salaberria Goizueta**, Goizuetan, abuztuaren 11an.

**Hasier Irazoki Altzuguren**, Etxalarren, irailaren 7an.

**Ainara Aranburu Madariaga**, Arantzan, abuztuaren 12an.

**Julen Oskoz Elizondo**, Arantzan, irailaren 12an.

**Hasier Calderon Agirre**, Beran, abuztuaren 10ean.

**Enara Irurieta Pikabea**, Beran, abuztuaren 20an.

**Unai Rodriguez Korta**, Beran, abuztuaren 20an.

**Iñaki Cortizo Lopez**, Beran, abuztuaren 20an.

**Arkaitz Olano Zabaleta**, Leitzan, ekainaren 27an.

**M. Goreti Galañena Otxandorena**, Leitzan, uztailaren 6an.

**Iker Urkiola Ezkurdia**, Leitzan, Abuztuaren 16an.

**Eneko Zabaleta Renteria**, Leitzan, Ekainaren 30ean.

**Orkatz Erbiti Larralde**, Leitzan, abuztuaren 23an.

**Ainhoa Araras Barriola**, Leitzan, irailaren 9an.

## HERIOTZAK

**Tomas Etxekolonea**, Zubietan, irailaren 7an, 62 urte.

**Miguel Largo Azpiroz**, Leitzan, abuztuaren 3an, 85 urte.

**Sabino Sagastibeltza Sestao**, Leitzan, abuztuaren 22an, 65 urte.

**Marcos Ariztimuño Goikoe-txea**, Leitzan, Irailaren 8an, 72 urte.

**Ana Saldias Mariezkurrena**, Leitzan, Irailaren 15ean, 77 urte.

**Jose Vicente Otegi Etxezarreta**, Leitzan, abuztuaren 29an, 82 urte.

**Juana Erasun Iribarren**, Saldias, abuztuaren 29an, 76 urte.

**Justina Elizondo Erasun**, Beintza-Labaienen, irailaren 4ean, 84 urte.

# ARRATZUBI ARDOTEGIA

Tfnoa.: 63 72 79, Bittiria karrika - **LESAKA**



Lore eta landareak

Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26  
**LESAKA**

# GOYA

JOSTAILUAK  
JANTZIGINTZA  
OPARIAK  
BURDIN TRESNERIA  
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA



## Gripearen kontrako txertaketa kanpaina

Udazkenero bezala, aurtengoan ere, Osasun Zerbitzuak antolatuz, gripearen aurkako txertaketa kanpaina egingen da.

Txerto hau bereziki gomendatzen zaie:

- 65 urtez gorakoei.
- Eritasun kronikoren bat dutenei nahiz eta gazteagoa izan, batez ere:
  - Diabetikoei.
  - Biriketako eritasun kroniko dutenei, adibidez; asmatikoei, bronkitis kro-

niko dutenei, e.a.  
- Bihotzeko eritasunak dituztenei, adibidez; infarto, tentsio altua, e.a.


- Giltzurdinetakoa gaitz kroniko dutenei.  
• Ikastetxeetako eta osasun etxeetako langileei.

Aipatutako guzti hauek txertaketa dohainik izanen dute. Argibide gehiago nahi izanez gero herri bakoitzeko Osasun zentratara jo. Txertaketak:


**Bortzirietan:** Urriari  
**Malerrekan:** Dagoeneko hasia dago kanpaina eta urriaren 13 arte izanen da.

**Baztan:** Irailaren bukaera bitarte.

**Leitza:** Urriak 1etik 19ra.



ITZIAR



Zubietan, herriko estetika hautsi gabe, bi etxe berri eraikiko dira hemendik denbora guttira. Etxe bakoitzak 90 m<sup>2</sup>ko lau bizitza eta 12 m<sup>2</sup>ko ganbara izanen dute.

Aintzinaldea Baztango harriez eginga eta leiho eta hegatzak gaztain egurrez.

Hall, 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Kalitate oneko materiale eta gaztain egurrez eginak. Etxe bakoitza propanozko kalekfazioa izanen dute.

Animo Zubietarrak!

Aukera interesgarria duzue!

Obra hau, Doneztebeko Intzakardi S.A.k egingen du, inguruko langileak erabiliz.

**INFORMAZIOA ETA SALMENTA:**

**Ezkalo Jauna - Tfnoa: 45 00 54 - Doneztebe**

**GUILLERMO TXOPERENA**

**STIHL eta JON SERED**  
Motozerra eta desbrozadorak

**ALFA**  
Ordeñadora eta segadorak

**VALPADANA**  
traktoreak

**Konponketa eta salmenta**

**IGANTZI**  
Tfnoa: 63 79 95




**M**AJO kostata baldin bada ere,... batzuk nahi izanen zuten bezain agudo ez, alegia. Badoala dirudi, lehen pausoak eman bait dira.

Paperezkoak direla, oraindik? Duda-rik gabe! Saiatu direnak besterik egitea ez bait dute lortu. Zertaz ari naizen? Hara:...

Udalak bakarka, herri txikietakoak bederen, indar eta diru gutxi dutela, gero eta garbiagoa dago. Hori afera guzietan, eta zerbitzuetan batez ere.

## Malerrekan, Zerbitzu Mankomunitaterik?





**M**ALERREKAN, zaborrekin ikusi genuen. Doneztebe-koak ere ez ziren gauza izan zerbitzua behar bezala antolatzeko. Elkartu behar izan genuen. Martxan da... eta hobetu beharra dago... baina erreka bazterrak eta herri inguruak nabaritu dute... eta boltsak, noski!

Zaborren Mankomunitateak dena den, ez ditu zerbitzu guztiak betetzen eta gero eta arazo gehiago amankomunak dira. Momentu honetan, esate baterako, inguru hauetan ematen den egoerarik xelebreena Malerrekako Zabor Mankomunitatean gertatzen dena dugu: Gizarte Laguntzailea edo Asistenta Soziala, Mankomunitate horrek kontratatu bait du. Euskara Zerbitzuak berak, ez daki zein egoratan dagoen; Kirolarena berriz, han bai eta hemen ez;... aintzineko batean esaten genuena: eredu bakarra, ia-ia, Arkupeak!

Ikasi ote dugu?


Hortara datoz aipatutako lehen pausoak: Zaborren Mankomunitatea hedatzera edo zerbitzuko berria erakitzea.

Komisio bat egin zen aurreproiektu bat osatzeko, eta laister, Udal guztietara igorriko da hamahiru puntutan banatutako proposamena. Azken moldaketa eman behar zaiola diote, baina hala eta guztiz ere, jakin eta ezagutu nahi baldin baduzue, hemen duzue laburbidurik.

Mankomunitatea zonaldeko Udal eta Kontzeju guztiak osatuko luketen, beurek erabakitako kompetentzietatik jantzirik, hau da; zerbitzu bakoitzendako beharrezkoak direnak eztabaidatu ondoren Mankomunitatean sartuko zen.

Mankomunitateak egoitza sozial bat, finkoa, izanen du baina, komisiok osaturik egonen da. Zerbitzu

Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatearen organigrama, eskematikoki, hauxe izanen litzateke:



Batzorde bakoitzak, bere alorrean, kompetentzia osoak izanen litzuzke

bakoitza aparte egon behar duela iduritzen baldin bada, bere komisioa izanen du, Udal ordezkarietaz osaturik, Udal bakoitzaren botereztatik jantzirik, noski!

Komisio bakoitzak edozein Udal-letan lan egitea izanen du. Bakoitzak bere plana eginen du eta baita aurrekontua ere. Guztia epe ezagunean aurkeztu beharko da eta azkenean, Mankomunitateak aurrekontu eta

plangintza osatu bat prestatuko du.

Koste ekonomikoak Udalen artean banatuko dira, biztanleen arabera eta komisio edo zerbitzuen parte hartzea kontutan izanik.

Ordezkaritza bakoitzak bere Udalerriko biztanleen arabera botu kapazitatea izanen du.

Komisio bakoitzak bere lehendakari, lehendakari-orde eta bokalari izanen ditu eta lehendakarien artean, Mankomunitateko hautatuko dute. Honek, Mankomunitateko lehendakariak, langilegoaren eta koordinazio lanaren kargu izanen du.

Orain, Malerrekako holakorik behar dugun ala ez erabakitzea gertatzen da. Udal bakoitzak emanen du bere eritzia, biztanle bakoitzak ere berea izanen du. Solastu, jotake, marrankatu arte, kasu murmurioekin, galdetu, ikusi eta ikasi, harrisku guztiak neurtu eta bideratu, ez haserretu, eta aurrera...

Malerreka, malda eta mala izan arren, bizi bizirik nahi dugu.






## Eguraldia, denbora, klima aldatzen ari ote zaigu?

Eguneroko gaia eta galdera dugu, baserritar eta kaletarren ezpainetan. Ikaragarritzko lehortearen omen da aurtengoa, inoiz ikusi ez den bezala kiskali ditu bazter guztiak; errekek gero eta ura gutxiago daramate, hazten badira ere, berehala hustutzen dira; ez du apenas negurik egiten.

Batzurentzat, guzti hau fenomeno berria da inguru hontan. Beste batzuk ez dira gehiegi harritzen: "lehen ere...". badira oso kezkatuak daudenak: goiko "teilatua" hori izorratuxea izanen dugu...

Guk kalera jo dugu, eta bapatean, galdera horixe egin diogu hari eta honi: *"Zure ustetan, sumatzen da aldaketa gogorrik kliman?, zer diozu ari duen eguraldiaz?"*

(Oharra: galdera hauek irailaren 15ean egin dizkiegu, eta aspaldi hontan euri tantarik ez da erori alde hontan).



**Casimiro Saizar,  
Ezkurra eta Eratsun-go  
medikua 49 urtez,  
Ezkurrara Jubilatua.**

**"Lehen ere  
ezagutu ditugu  
ederrak"**

•Gora-behera asko dabilzki eguraldiak, eta lehen ere izaten zituen. Egia da, orain neguak suabegoak dira, gozoagoak. Baina ez da kezkatzekoa, ez dut uste gauza berria denik, ezin da esan aldaketa sakon bat ematen ari denik.

•Lehen ere ezagutu ditugu lehorte ederrak; eta bustialdiak ere. Ez ditut gogoan urteak, baina zuri-beltzak ikusiak gara lehen ere.





**Jose Perurena,**  
Leitzako "Miltxonborda",  
artzai, bizi guztian.

**"Laister itzuliko  
da lehengo  
bidetara"**

•Eguraldia?. Lasai egon, laister aldatuko du berriro. Txarrera joko du, hotzara. Hilabete baten barru. Eginen du aurten negua, bai, eginen du.

•Aldaketa batzuk sumatzen dira. Lehen askoz ere euri gehiago egiten

zuen. Jendea ere aldatu egiten da, eta hori ere aldatzen doa. Zerbait bueltak dabil hor goian, hiru edo lau urte behar izaten ditu buelta osoa emateko. Berezkoa du horrela ibiltzea. Baina laister itzuliko da lehengo bidetara.



**Luis Lasarte,**  
22 urte amurrainak hazten.  
Iturengo piztifikatoriako  
nagusia.

**"Urak berotzen  
ari dira urtetik  
urtera"**

•Lehen, neguan 15 edo 16 gradutan egoten ziren erreketako urak. Orain, neguan ere, 22 gradu baditu. Poliki poliki, erreketako urak beroagoak datozte, urtetik urtera gorantz beti.

•Bai, bai, klima aldatzen ari da, nere ustetan. Sekula ez dut ezagutu nik orain bezalako lehorterik, sekaterik. Sekula. Ezta

errekak hain ura gutxirekin ere.

•Nik uste hau dena "Efecto invernadero" horrengaitik dela. Gero eta petroleo, harri ikatz eta erregai gehiago erretzen da, hori dena gora doa, eta barrera bat egiten du, ez dio uzten lurrintzera, ebanporatzera eta lurrera ez da iristen hainbat freskotasan.



**Jose Ignacio Usabiaga,**  
Igeldoko Metereologi  
Zentruko arduraduna.

**"Lehen hainbat  
euri egiten du  
orain ere, baina  
modu  
desberdinean"**

•Eguraldia eta klima beti da aldakorra, ari da eta ariko da kanbitzen. Aldaketa sakonik ematen ari den jakiteko, ikus dezagun zein datu eta noiz ezkeroko datuak konparatzen ditugun elkarrekin.

•Egia da, azken urte

hauetan sirimiri famatua ez da apenas ageri, trumobeak gehiago jotzen du, maizago hego-haizeak ere, negua eta uda beranduago datozte... Baina, hori azkeneko urte hauetan. Berriak dira gure artean gertakizun horiek?

• Adibidez, eta ditugun datuak eskutan: ez du orain lehen baino euri gutxiago egiten, gertatzen da, bapatean erortzen dela, lehen egunetan erortzen zena. Baina, batazbeste, gutxiago ez du egiten. Edo lehortek: 1914. eta 1915. urte-

tan oraintxe bezelatsuko lehortea egin zuen, 18 hilabetez

•Eguraldiak ziklo gisako batzuk izaten ditulakoaren susmoa daukagu. Baina hori ezin da urte batzuetako datukin ikusi; hortarako 100 urte edo 120 urtetako datuak beharko genituzke behintzat, eta ez ditugu.

ANTTON



## Arduradunen axolagabekeriagatik, kirol aktibitateak 9 hilabetez gelditurik

Duela 3 hilabete terdi oposizioak gainditu zituen Eskualdeko Kirol Koordinatzaileari ez diote oraindik kontraturik egin

Maiatzean sail honetan bertan agertu genuen informazioa berrikusten badugu, arazo larri bat baze-goela ohartuko gara: Baztan-Malerreka-Leitzaran eta Bortzirietako kirol plangintza (Aktibitate programazioak, diru laguntzak e.a.) gelditurik zeudela hain zuzen ere, eskualderako **Kirol Koordinatzaile**rik ez zegoelako.

Egoera hura laburki azaltzen saiatuko naiz. Lehen kirol koordinatzailea zen Iñigo Doria-k bere kontratua bukatu zuenean, eskualde hau koordinatzaile gabe gelditu zen. Ondorioa garbi ikusi da: joan den urteko aktibitate gehienak ez bait dira egin.

Nafarroako Gobernuak diru laguntza bat luzatu zien Baztan-Bidasoako udalei, beraiek norbait bidaltzen zuten bitartean, Udalek bakarren bat kontratatzeke eta horrela geldialdi honi —2.000 lagun baino gehiago kirol aktibitate gabe eta kirol laguntzetarako 3.000.000 pzta. geldirik, gastatu gabe— irtenbidea emateko.

Horrela, ekainean lanpostu horretarako oposi-



Argazkian ageri diren Lesakako saski-baloi eskolakoak bezala, aktibitate antolatuz ez eta... geldirik daude hainbat eta hainbat gazte erreka osoan

zio-lehiaketa deitu zuten eta baztandar batek gainditu egin zuen. Baina ia hiru hilabete terdi pasatu ondoren, oraindik kontratua firmatu gabe dago eta egoerak berdin xamar jarraitzen du.

Eta, arazo hau noren baitan dago?. Baztan-Bidasoako kirol batzordeko—25 udalez osatuta dago—zuzendaria Baztango alkatea den Elizalde jauna dugu eta zuzendari ordea Pedrosa jauna. Beraiek daukate kontratua firmatzeko boterea eta orain arte ez diote egin. Nola daiteke paroan dagoen

persona bati orain dela hiru hilabete terdi oposizioz ateratako lanpostua, arduradunek nahi ez dutelako, oraindik kontraturik ez egitea?. Gainontzeko udalek erran dutena ez ote du deus ere balio?. Nor dira beraiek bertzeen edo denen diruarekin —Nafarroako Gobernuak 1.500.000 pzta. eman zuen persona hau kontratatzeke— jokatzeko?. Ez al zaie axola mila-lagun kirol-aktibitate gabe egotea eta diru laguntzak geldirik egotea —subentzioak galtzeko arriskua dagoenean— beraiek arrokeria eta utzikeria gar-

biki erakusten duten bitartean?.

Arazoa konpontzeko egin diren batzarretara, zergatik ez dira agertu Pedrosa eta Elizalde Jaunak? Hauexek dira eskualde osoko zuzendariak eta beraiek daukate boterea dirua kutxatik ateratzeko. 9 hilabetez geldirik egon ondoren, ez dirudi inork ez baldin badie nolapait es-tutzen bederen, mugituko direnik. Eta noiz arte horrela?.

MATTARI ALTZUARTE  
Bortzirietako Kirol  
Koordinatzailea



Igeriketa

Baztan-Bidasoa-Leitzararen  
iharduketa bikaina Nafarroako III.  
Igeriketa jokoetan



Baztan-Bortzirak-Malerreka-Leitzararen ekipoko partaideak

Bikaintzat har daiteke kimu eta haur mailetako taldeak Olazti-n lortu zuteneko emaitza, lau garai-pen eta bi bigarren toki banakakoetan eskuratuz, taldeka hirugarren geratuz, Iruñeko eskualdearen gaitetik.

**Banakako sailkapenak**

*Mariposa estiloan*, emakumezko kimu mailan: 2. Saioa Ataun (BOR); haurretan: 5. Oihana Senper (BOR); eta gizonezko haurretan: 4. Haritz Perez (BOR). *Sorbaldan*, gizonezko kimuetan: 3. Iker Bengoetxea (LEI), 4. Juan Perotxena (BAZ); emakumezko haurretan: 1. Ines Barberena (BAZ); eta gizonezko haurretan: 5. Oskar Alvarez (BAZ). *Besoan*, gizonezko kimuetan: 1. Josu Ganboa (LEI), 5. Iban Fagoaga (BOR). *Libreetan*, emakumezko kimuetan: 5. Saioa Ataun (BOR), 6. Annelis Pero-

txena (BAZ); eta gizonezko kimuetan: 1. Josu Ganboa (LEI); emakumezko haurretan: 5. Oihana Senper (BOR); eta gizonezko haurretan: 3. Haritz Perez (BOR), 4. Joseba Errandonea (BOR). *Australiarretan*, gizonezko kimuetan: 1. Josu Ganboa (LEI); emakumezko haurretan: 2. Oihana Senper (BOR).

Honela, taldeka Nafarroa mailan, *errelebo libreetan*, kimu mailan: 3.; haurretan 4. gelditu zen gure zonaldea. *Proba konbinatuetan*, kimuetan eta haurretan: 4.

Bertzalde, aipatutakoaz gain taldea osatzen zuten: Leire Goikoetxea (LEI) eta Estitxu Gastes (MAL) kimuetan; Ainara de Miguel eta Aitziber Nabaskues (LEI), eta Manuel Iribarren (MAL) haurretan.

ROMAN HARRIBILAGA

Pilota


Arretxea eta Larretxea Gravn erako  
final erdietan



Ezkerretik eskuinera Gorka Arretxea eta Mikel Larretxea

Gorka Arretxea eta Mikel Larretxea Beratar pilotari bikoteak hastear dagoen Gravn txapelketan Nafarroako taldea osatzeko balioko duen lehiaketaren finalerdietarako sailka-

tu dira, Tafallako Ereta frontoian benjamin mailan jokaturako partiduan 18-5 Iruñeko Oberena taldeko Erro eta Martinez de Irujo garaitu ondoren.



**Goizuetako XII. esku-pilota  
txapelketa**

Hasi berria da eta guztira 39 bikotek parte hartzen dute. 11 urte artekoetan 6 bikotek (Goizuetakoak); 11-12koetan beste 6k (Goizuetakoak); 13-18koetan 12 bikotek (Goizuetakoak), Uharte-Arakil, Oiartzun,

Almandoz, Leitza, Oberena (Iruñea), Irurtzun, Arano eta Usurbilgoak; 18 urtez goikoetan 15 bikotek (Goizuetakoak, Betelu, Lasarte, Oiñatik, Tolosa, Irurtzun, Oberena, Arrasate, Zarautz eta Irunegoak).



**H**AU mundu!, esango luke ezkurarrak. Eta ez litzaioke arrazoirik faltako. Bazter guztietako te-  
lebisioek diotenez, hor non-baitetako hondartzetan aurkitzen omen gara larrugorri-  
rik gure potro eta kartolak eguzkitan lehortzen. Daitekeena da kasu batzuetan horrela izatea, baina niri behintzat aulkitik leihoraino iristeko baino ez dit ematen eskuratzen dudan jornal mixeriak. Eta ez naiteke kexa, izango bait dira mixeria horretara ailegaten ez direnak ere. Paroan dau-  
denak lekuko. Baina, hori bai, arimorik galtzen ez dugun artean, kafetxo-  
a herriko edategian eta liburu bat eskuetatik ez digu inork kenduko.

Oporrak iritsi baino egun batzu lehentxoago erori zitzaidan liburu hau. Ez nion begirik gaintetik kentzen, irakurtzeko irrika bizian nengoen. Ez nintzen hasi nahi orduko, ez bait zaigu egunero kaleratzen euskaraz idatziriko Saio Filosofiko bat. Luma, Filosofiako bi tomo eta, aide!

Baina liburu-  
a bukatuta gero, zalantza bat gelditu zait. Idatzi bahar nuke ala ez horrelako testu irazkinik? "Hitz eginaz, maiz izanen duzu damu; isilean paseaz, sekulan ez" irakurri dut apo tipiarenean idazlearen beste liburu batean. Isiltasuna hainbeste maite eta miresten duen idazleari, Goizuetako Ibero baserriko Bixen-

## Harripilatan ezkututzen zeneko apo tipiarenean burutazioak

Patziku Perurenean azken liburu-  
a

te eta Heraclito... beren isiltasunarengatik eredutzat hartzen dituenari horrelako faena egitea ere. Beste edozein mementutan gustora entzungo niokeen horrelako esaldiren bat, naizen alproja kontutan harturik, ez bait dut batere gogoko idazteko hau. Baina oraingoan idazteko beharra senditzen dut eta baldin "badira tarteka marteka, senditzen dutena zehatz mehatz adierazi dutenak", horietako bat izaten saiatuko naiz kupidarik gabe. Goazen bada, bete-betean, Perurenean tesia garantzera alez-alez:

Munduko izaki guztiak behar bezalakoak dira, *naturalak*, gizona ezik. Gizona da bere buruaren jabe ez den gizaki bakarra eta beraz, desgizon bihurtu dena. Nola izan da gizona desgizon bihurtzeko prozesu hori? Hiru dira prozesu horren zergatia edo kausak: **Kristautasuna, iraultza ustez antikristaua eta dekadentzia modernoa.** Hiru bideok dialektika bera erabili dute desgizotasun-erantz iristeko. Baina, joass!, dialektika hitza aipatu dut? Jainko eta munduko apo guztiak salba nazatela gure Patzikuren atzaparretatik! "gauzen esentzia, hau da, gauza ororen benazkotasuna ukatu baino ez du egiten dialektikak" eta. Beste alde

batera proposatu beharko dut nere galdera: zein da desgizon bihurtze horren "sen xikina"? Konpasioa, hau da, errukia. "Gizarteko gaitz guztiak errukiaren ondorio dira. Inperialismoa, esate baterako. Edota inperialismoaren sorburu eta sostengu deneko iraultza berbera" "Pertsonak goranzko bizitza egiten zuen denboran (...) bakoitza bere garaian hiltzen omen zen; orduan ez omen zen oraindik konpasiarik, iraultzarik eta dekadentziarik eta horrelako zikinkeriarik ezagutzen..."

Baina joass eta joass!!, berriro esanda ere. Oraingoan bai ez naizela libratzen. "Erudito" en zakuan erortzen ari naiz. Eruditoak? "Han hemenka oiloak moka bezala, berei interesatzen zaizkien datutxoak hartzera bestetara ez dira dedikatzen" "Munduan diren pertsonarik inkultuenak eruditoak dira". Begira nora bidali gaituen apo tikiak lan hauetan ausartzen garen guztiok. Baina asko gara zaku horretan, baita gu baino makina bat ospetsuagoak ere: "Hesiodo, Pitagoras, Jenofanes, eta orduko bere (Heraclitoren) adixkide txulo pedante" guztiak ere. Aike joderse!, zeinek esango zion gure Pitagorasi bere teorema asmatzerakoan,

kateto izena erabili beharrean, paleta hitza egokiago zegokiokoela? Ez iezadak gaizki hartu, Patziku, baina, hik dituk, hik. Liburu honen bigarren atala leitzean gozatu dudana, gutxitan disfrutatu diat. Lehendabiziko atala sakonagoa duk, hirugarrena osagarriagoa, baina bigarren hau ez nitek deusengatik aldatuko.

Etenaldi txiki honen ondoren, ekin diezaiogun berriro arlo filosofikoari. Naturan oinarritutako tesiaren ikuspuntu hori ardatz eta iturri duelarik, bana-banaka, zehaztasun zorrotzez ekiten dio, Descartesek bere "cogito ergo sum" en ondoren bezala, balore guztien azterketari. Horretan jartzen ditu bere zentzuak eta bat gutxiago. Bai, bai, ongi leitu duzue, zentzu guztiak eta bat gutxiago, horrela bait dio Perurenak "Segurantzila dabilenarentzako: hiru oin dituen mahaia lau oin dituen baino seguruago senditzen den bezala, zentzu bat gutxiago duen desgizona ere ez ote da seguruago senditzen?"

Baina luzatuz noa eta oraingoan amaitu beharrean aurkitzen naiz. Zertarako luzatu eta gauzak argitu beharrean gehiago iluntzeko arriskuan jarri? Zuzen jotkatzez geroz, bide bakarra liburu-  
a irakurtzea duzue. Ez zaizue damutuko, batez ere filosofia piskaren bat landu duzuenei eta, zer esanik ez, euskara txukun, erraz eta literario on bat dastatzen dakizuenei.

PATTATTA



Horoskopoa

## Virgo,... "birgina"

**V**IRGOren mitoak, badi-rudi, Egipton duela jatorria, ale edo granoen Nidaba Jainkosan. Leku horretan Virgoko ilargi betearekin hasten ziren uzta ebakitzten. Grezian Demeter zen Nekazaritzaren Jainkosa, erromatarrek Ceres deitzen zuten. Lur-lan eta uztetan eragina zuen, eta gari sorta batekin apaindua saski bat fruita zeramala ordezkatzen zuten. Demeterrek alaba bat zeukan, Core, eta hau Hades-Plutonek bahitu egin zuen. Ama bere alabaren bila joan zen infernutara, uztak usteltzen utzi eta.

Azkenean antolaketa hau egin zuten: alabak urte erdia amarekin lur gainean pasatzea eta bertze erdia infernutan senarrarekin. Honek gauza saila adierazten du: andreak, ama eta senarraren artean erdibanutu behar duela; umeen bokazioa errespetatu behar dela; aleak lur gainera atera aintzinean lurpean dagoen epea pasatu behar duela;...

### Udaren amaiera

Hau da udaren azkeneko hilabetea. Egunez eguzkiak oraindik nahiko berrotzen badu ere, gaua na-



barmenki luzatzen da eta aski freskoa izaten da. Garai honetan biltzen dira uzta gehienak. Dena bildu, klasifikatu, laboratu eta altxatzeko sasoia da.

### Virgo arketipoa

Leo fasean, pertsonak ikasi behar zuen liderra izatearen eta agintzearen garrantzia. Orain aldiz, apala izatea eta obeditzearena. Virgoren eginbeharra da

emankortasuna eta lanaren fruituen garrantziaz ohar-tzea: ez gelditzea lan egiteko moduaren azakeriarekin bakarrik, prozesu orokorraren trszendentzia ulertzea baizik.

Lana eta fruituak aipatzerakoan ez dira lurrarekin bakarrik, baita pertsonalitatearenak eta bizitzeko behar diren guztiak ere.

Lehenxeago edo gero-

xeago fruitua zuhatzetik eta umea amarengandik bereizten dira. Virgotarrei inori baino gehiago, damutu egiten zaie bereiztearen samintsuna.

Virgo lur elementokoa da, mutablea eta negatiboa. Virgotarrak pentsamodu analitikoa eta praktikoa izaten du. Lana planifikatzen eta arrazionalizatzen saiatzen da, baliagarri izateko. Beretzat irainik haundienetarikoa baliogabea da. Beretzat eskuzabaltsuna, serbiziala izatea da. Sentimenduz edo intuizioz baino gehiago, gauzen baliogarritasunez gidatzen da. Errealitatea filtratu eta klasifikatzen duenez, zientzilaria aproposa da.

Gorputz zodiakalean, Virgo hertzeak manatzen du eta higieenez ere arduratzen denez, ez da arraroa barazkijalea bihurtzea. Bertzalde kualitate hauek bide txarretik eramanez, ordena eta garbitasunaren maniatikoa, zikoitza,... egiten dute Virgo.

Azkenik, zorionak virgotarrei eta kontseilu bat: ez kezkatu horrenbertze eta saia zaitezte ongi pasatzen!

FERMIN ALTZUGUREN




# MERKATU TTIKIA

## Etxebizitzak

•**Beran pisuak** alkilatzen dira Laruntxoko baserrian. Tfnoa. 630217

•**Lesakan lokal bat** transpasatzen da Arretxea karrikan (Gaia). Tfnoa. 637410

•**Beran pisu bat** alki-latzen dut. 25.000pzta. Tfnoa: 450054



•**Elizondon**, neska bat eskeintzen da haurrak zaintzeko. Tfnoa: 580827. M. Anjeles-etaz galdetu.

## Lana

•**Iruñean** neska euskalduna behar dugu Irailetik aurrera orduka etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko. Telefonoa 255121. Amaia Zubieta.

•**Gitarra klaseak** ematen dira. Tfnoa: 630217

•**Neska euskaldun bat behar da Iruñean** haur bat zaintzen lan egiteko. Lanpostu fijoak. Deitu 239274 tfnora.

•**22 urteko neska** eskeintzen da edozein lanetarako. Deitu 637095 tfnora.

## Salerosketak

•**Akumulatzaile elektriko** bat saltzen dut, programadorearekin. Tfnoa: 630484.

•**Idazmakina elektronikoa** saltzen da. CANON markakoa. Deitu 631188 telefonora.

•**Erloju zaharrak** erosiko nituzke. Deitu 450054 tfnora.

•**Mountain bike** Peugeot VTT Ozean Spres saltzen da. 60.000 pzta. Tfnoa:63 07 51.

•**Tijuana in Blueren** diska bat saltzen dut (sopla, sopla) 1.000 pzta. Deitu 581039 tfnora

•**Pigini** markako akordeoi bat daukat salgai. 90 bajo eta 5 erregistro ditu. Deitu 637818 tfnora.

•**1.700 litroko zistera** berria saldu nahi dut. Trakzioduna eta merkea. Deitu Zigako 581023 tfnora.

•**Bigarren eskuko elektrogailuak** eta era guzietako mobleak erosiko nituzke. Etxetik hartuko nituzke eta eskutara ordaindu. Diskrezio osoa. Tfnoa: 450054

•**Collie zakurkumeak** saltzen dituz. 25.000 pzta.

Tfnoa: 450054

•**Akordeoi kromatiko** bat saltzen da. 120 bajo, 13 erregistro eskubian eta 7 ezkerrean. Soprani. 943 - 675762 tfnoa.

## Denetarik

•**8 zakurkume** Pastor Aleman arrazakoak eta hilabetekoak emanen nituzke. Nahi dituenak dei dezala 635141 tfnoa.

•**Ekipoak alokatzen dira** Udalentzat, bertsolarentzat, elkarteentzat, mitinetarako eta abar. Laia musika dendara deitzea bertzerik ez duzu 63 10 59.

## Harremanak

•**Ester Iñigesi**, Berako sagutxo dotoreari agurra bidaltzen dio mutil ikustezin batek. Lekarotzen ikusiko gaituk!

•**Kaixo** lagun jator horiei: klasean hasi garenetik lur jota zaudete eta hori ez da komenigarria, horrekin ia dena esana dago, ez da? Jotake betikoak izan arte. Bihotz.

ORRIALDEHONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua: .....

**ttipi-ttapa**

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

**ttipi-ttapa** ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK .....

HELBIDEA .....

HERRIA .....

**ttipi-ttapa**

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188



# DENBORAPASA



	●				Bidasoaren ibaiadarra		Ipar. Garesti		Abestia
	Burdinazko pisuak				Iridioa		●		
	▶				▼		▼		▼
	Arrantza teknika	▶							
	Zintzo								
	▶				Axaleko	▶			
					Zero				
●	▼	Ugaztun hausnar- tzaile mota	Pott	▶	▼				
Erabat			Suari dariona						
▶		▼	▼		Atx!	▶		Uranioa	▶
					Lehen bokala			Skinen oihua	
Burdin- bidea	▶				▼	Batuan, noaie	▶	▼	
Portugesen kolonia						Zametako likidoa			
▶					Gari	▶	▼		Lapurdiko herria
					Kontsonan- te bikoitza				
(Haur hiz.) Musu	▶		Lur azaleko erreka	▶	▼			Bokala	▶
Urri			Joan den urtean					Azken eta lehenengoa	▼
▶			▼	Gauero ohi dugu	▶		Kontsonan- te bikoitza	▶	▼
				Röntgen			●		
Atzizki handigarria	▶			▼	... hartu, lokartu	▶	▼		
Ukatzeko					Seguru				
▶		Azkenekoa	▶	Mend. Zen	▶	▼		Bokala	▶
		Emakume izena		Euskal sindikatu				Bi	
●	Bokala	▶	▼	Bizk. Omen	▶	▼	502	▼	
	Iparre- tarrak			Inter- jekzioa			Kontsonan- te bikoitza		
▶	▼		▼				▼		
Marfundi, hoztura	▶							Bokala	▶

● Perretxiko ezagun zenbait

ENBIDIO



# IGANTZI

## XI. Artzai Zakur Lehiaketa

1990eko Irailaren 30ean  
arratsaldeko 4,30etan  
Meakaundiko zelaian



**NAFARROAKO AURREZKI KUTXA**